15 .URTEURRENA

ortzadar

Larunbata, 2013ko urtarrilaren 26a. 293 zenbakia

noticiasdegipuzkoa.com

euskal kulturaren kolore guztiak

MAITE IDIRIN

"Kantua, beste ezeren gainetik, alaitasun sortzaile eta komunikatzaile da, baita kontzientziak suspertzeko izugarrizko bitartekaria ere"

-- 3-5. orrialdeak --

saski-naski

KRITIKA

Ase gabe

IBON EGAÑA

TITULUA: **'ZINTZOEN SALDOAN'** EGILEA: **JON ALONSO** ARGITALETXEA: **TXALAPARTA**

JON Alonsoren *Camembert helburu* liburu kutunetakotzat duen irakurle honek gogotsu hartu du iruindarraren nobela berria, besteak beste, 1998ko saiakera-eleberri hartako protagonista, Enekoitz Ramirez, *berpiztu* duelako kontakizun berrian. Baina agian espektatibak goraxeegi jartzeagatik beragatik, ez du erabat asebete *Zintzoen saldoan* lan berriak.

Interesgarria du nobelak abiapuntua: Ramirez, beste kide batzuekin batera, eliteko euskal sukaldarien jatetxeetan *paloak* ematen ibili da. Sukaldari bat hilik agertu dela eta erruduntzat joa, kartzelatik sartu-irten laburra eginda libre geratuko da, abokatu baten *eskuzabaltasunari* esker. Ezer ez da debalde, jakina, are gutxiago eleberri beltzetan, eta aske geratzearen truke sukaldarien munduan, eta orotariko jende-klasearekin nahastu beharko du protagonistak. Badu, beraz, bestelako parekotasunik nobela berriak *Camembert helburu* harekin, protagonistaz gain: kutsu poliziako eta beltzeko ikerketa baten aitzakian kultur esparru baten gaineko gogoeta eta kritika zorrotza bilatu du Alonsok batean zein bestean (arte garaikidearen esparrua batean, sukaldaritzarena bestean), mundu horien tripa ilunetaraino jaitsita.

Desberdintasun nagusi bat ere badakar, baina, *Zintzoen saldoan* honek *Camembert helburu*-rekiko, hots, oraingoa nobela beltzaren egiturari estuago lotzen zaion kontakizuna da, ez *nobelaz mozorrotutako saiakera*. Pisu handiagoa du tramak, beraz, erritmoa ere biziagoa du narrazioak, eta leku txikiagoa digresioek. Pertsonaien arteko elkarrizketak, esaterako, oso biziak dira, bikain eraikiak. Haatik, egileak hau nobela beltz soila dela esan badu ere, oraingoan ere ez dio uko egin orotariko gaiak narrazioaren harian josteari, gehienetan hausnarketa mamitsu, txinpartaz beteak eskainiz : egungo sukaldarien pretentsio artistiko eta goranahiez edo *Bazkaltzaindiaz* (*Euskal karma*-ko estilo satirikotik hurbil), ezleku antropologikoez nahiz maitasunaren eragin baltsamikoaz. *Zintzoen* eta *gaiztoen* arteko banaketaren faltsua eta aldakortasuna da nobelako motibo konstanteetakoa, dela pertsonaien gogoetetan, dela pertsonaien garapenean berean. Aitzitik, nobelaren tramatik gogoetetara maiz dagoen jauzi handiegian galtzen du nobelak, irakurle honen iritzian, sinesgarritasuna eta trinkotasuna. Ez zaio sinesgarri egin abokatuak eta Enekoitzek afari batean Euskaltzaindiaren ospakizun bateko menua edo Cunqueiro hizpide hartzen dituztenekoa, ez eta pistola baten mehatxupean, protagonistak *Diario de Navarra*-n eskela jartzeari buruz egiten duen bizpahiru orritako digresio ironikoa ere. Era berean, narratzailearen hainbat kezka –diglosiari edo literaturak gaurko gizartean betetzen duen lekuari buruzkoak, esaterako– Jon Alonso idazlearenak begitandu zaizkio, ez Enekoitz Ramirez pertsonaiarenak. Halaber, zenbaitetan istorioak eskatzen dituen bideetatik aldendu eta argumentua bihurritu egiten duela dirudi, egileak landu nahi dituen zenbait gairi lekua egiteko.

> **Egileak nobela beltz soila dela esan badu ere, ez dio uko egin orotariko gaiak narrazioaren harian josteari, gehienetan hausnarketa mamitsuak eskainiz**

Gozatu dut, eta barre egin, Alonsoren gogoetekin. Gozatu dut, halaber, bukaera aldera, nobela beltzago bilakatu eta pertsekuzio eta guzti, generoari estuago lotzen zaionean. Baina tartean erdibidean geratu eta osagai ezberdinegiak plater berean eskaintzen zaizkigula iruditu zait, elkarrekin ongiegi lotzen ez direnak.

SALDUENAK

Fikzioa

1. **Ez naiz ni**
Karmele Jaio. Elkar.
2. **Mussche**
Kirmen Uribe. Susa.
3. **Zintzoen saldoan**
Jon Alonso. Txalaparta.
4. **Zaindari ikusezina**
Dolores Redondo. Erein.
5. **Atzerri**
Mikel Antza. Susa.
6. **Urak dakarrena**
Toti Martinez de Lezea. Ttarttalo.

Ez Fikzioa

1. **Su haietatik ke hauek**
Iñaki Petxarroman. Txalaparta.
2. **Bizientzat eta hilentzat**
Tomas Tranströmer. Elkar.
3. **Barkamena, kondena, tortura**
Joxe Azurmendi. Elkar.
4. **Argien Aroa. Arnaldo Otegirekin solasaldia**
Fermin Munarriz. Gara egunkaria.
5. **Eguberria. Ohitura, kantu...**
Juan Kruz Igerabide eta Elena Odriozola. Nerea.
6. **Independentziaren paperak**
Pako Aristi. Erein.

LIBURU DENDAK: Elkar, Casa del Libro (Bilbo), Auzolan (Iruñea)

ERAKUSLEIHOA

KONDAIRAK

'Nafarroako Kronika ezZinezkoak'

Mikel Zuza. Fernando Rey (itzul.). Pamiela. 128 orr. 11 euro.

Gertakizuna eta fikzioa bereizteaz

"Batzuetan ez gara ohartzen nolako arrasto eta oinatzak uzten dituen iraganak gure hurbileneko ingurunean. Ez gara ohartzen egunero ibiltzen garen kalean, herrixka polit horretan edo igo gogo dugun mendi horretan ahanzturatik salbatzea merezi duten historia txiki asko gertatu zirela. Erdi Aroko Nafarroari buruzko kontakizun hauek hori dute xedea, baina errealitatea eta fikzioa nahasiz, hainbeste nahasiz ezen nekez bereiziko baitugu zer den gertatua eta zer asmatua...".

ELEBERRIA

'Eserleku hutsa'

J. K. Rowling. Alberdania. 560 orr. 23 euro.

Ezustekoa ustezko herri baketsuan

Barry Fairweather 40 urte bete berritan hil da, eta Pagford herri txikia shock batean bezala geratu da. Itxuraz, herri patxadatsua da. Baina itxura idiliko horren atzean, gatazka larria ezkutatzen da. Aberatsak gatazkan daude pobreen aurka, nerabeak gurasoen aurka, emazteak senarren aurka, irakasleak ikasleen aurka... Gerra horiek denak ezkutuan egon dira orain arte, baina Barryk parrokiabatzarrean utzi duen hutsuneak inoiz Pagforden ikusi gabeko gerra piztu du.

HAUR LITERATURA

'Amattoren uzta'

Mayi Ariztia. Maite Gurrutxaga (ilus.). Patxi Zubizarreta (egokitzailea). Erein. 88 orr. 14 euro.

Ez belearen eta ez mikaren bihotza

"Erraten zuen ere, nahi baldin bazen froga bat, egiazki Axular salbatua izan zela (...) aski zutela bihotza kentzea eta ezartzea sagarrondo baten gainean: zeruan baldin bazen, fika edo mika batek eramanen zuela bihotz hori, eta zigortua bazen, bele batek. Hala egin eta etorri ziren berehala bele bat eta mika bat, karrankaka! Baina ez zuten ez batek ez bertzeak eraman...". Klis-klasikoak sailak Ariztiaren ipuinbildumarik ezagunena eskaintzen du oraingoan, 1934an idatzi zuena.

ZALDI EROA

Editorial Iparraguirre S.A.

Zuzendaria: Bingen Zupiria
Ardura: Iñaki Mendizabal Elordi (mendi@deia.com)
Koordinazio lana: Amaia Santana (asantana@deia.com)
Diseinua: Jesús Santamaría
Maketazioa: Naroa Etxebarria
Portadako argazkia: Juan Lazkano
Lege Gordailua: BI 1720-06

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Gehigarri honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

MAITE IDIRIN

KANTARIA

“Asko ikasteaz gain, zoriontsu sentitzen naiz musika munduan”

Maite Idirinek “bizitzaren zati eder bat” darama musika munduan, eta ez zaio nekerik sumatzen. Oraintsu kaleratu du ‘Gabon Kantak’ lana, eta proiektu berriak prestatzen ari dela dio

IZARO AULESTIARTE

“Kantua kontzientziak suspertzeko izugarrizko bitartekaria da”, dio. J. LAZKANO

GITARRA soinean zuela hasi zen Maite Idirin (Ugao, 1943) jendaurrean kantari. Protesta hitzez eta doinuz bustitako hastapen musikalak izan zituen, baina 1980az geroztik disko klasikoen aroa hasi zuen, Euskal Kamerata taldearekin, besteak beste. 40tik gora urte daramatza kantuan, eta “oroitzapenez gainezka” sentitzen dela dio. Bere azken lana aitzakiatzat hartuta, orainaz eta iraganaz galdezka joan gatzaizkio.

‘Gabon Kantak’ kaleratu berri duzu, 2004ko abenduan Hendaiako Abbadia gazteluko kaperan Muriel Dupin harpa-jolearekin eta Maryse Graciet flautistarekin batera egindako emanaldiaren grabazioarekin. 16 kantu biltzen ditu diskoak. Ikerketa lanik ere bada bilduma honen oinarrian, ezta?

Euskal Kultur Erakundeak gabon kantekin egitarau bat egitea proposatu zidanean, ikerketatxo bat egin nuen. Berehala jabetu nintzen altxor bat zegoela euskal gabon kanten alorrean. Kontzertuaren lehen partean, Aita Donostiak harmonizatutako zortzi kanta eman genituen, horietariko hiru XVII. mendetik datozenak. Herritar izaerako kantu bitxi bezain eder batzuk dira; hitzen balioarengatik eta batez ere melodiengatik. Pausaren ondotik, Jacques Ibert (*Entracte*), Marin Marais (*Le basque*) eta Maurice Ravelen *La flûte enchantée* ere kantatu nituen; jarraian, Arrasateko anonimo bat eman nuen *a capella*. Baita Peñaflorida Kondearen *Irten ezazu* gozagarria ere. Eta A. Intxaustiren *Polit ederra*, xarmangarria, eta J. M. Usandizagaren *Bi eguberri* kanta kantatuz amaitu genuen kontzertua.

Diskoaren sarrerako testuak dio eguberri kanta zaharrak ez zirela elizetan kantatzeko eginak izaten...

R. M. Azkueri irakurri nion berri hau, eta horren arrazoia sinplea da: luzez elizetan latinez bakarrik kantatu baitzen. Herri hizkuntzetan kantatzeko baimenik ez zuen Vatikanoak ematen. Pixkanaka bakarrik sartu ziren herri hizkuntzak elizetan. Eta Vatikano II.az gero normalizatu egin ziren herri hizkuntzak, horien artean euskara ere.

>>

Maite, egin dezagun denboran atzera. Gogoan duzu gitarrarekin jendaurrean abestu zenuen lehen aldia?
Bai, oso ondo gogoratzen dut. Zeberioko Santa Kurtze auzoko festetan, 1968ko maiatzaren 5ean izan zen, Abel Muniategi bertsolariak aurkeztu ninduelarik. Nire gitarrarekin lagunduta euskal errepertorioko zenbait kantu zahar interpretatu nuen.

Atahualpa Yupanquik biziagotu ei zuen zure ibilbide musikala...
Koraletik harago bakarka kantari hasteko prestaketekin nenbilela, Atahualpa Yupanqui zuzenean entzutera joan nintzen Bilbora. Hunkiturik gelditu nintzen haren kantuen hitzekin; indioen bizitzak eta zapalkuntza gertakizunak kantatzen zituen. Ordurako ni ere sentsibilizaturik nengoen euskaldunen askatasun faltarekin, aita lehenik gudari eta gero hiru urte eta erdiz preso egona baitzen Madrilen. Eta familia euskalduna izanik ere etxetik kanpo ez baikenuen euskal arnasarik hartzen ahal.

Laster etorri zen zure lehen diskoa...
Zeberioko nire lehen kantaldia bukatzean gizon bat inguratu zitzaidan; Cinsa diskoetxekoa zela esanez, *single* bat grabatzea proposatu zidan. Atahualpa ikusi berria nuenez eta hark sortutako zirrarapean nintzenez, haren diskotik lau kantu hautatu nituen euskaraz grabatzeko: *Haize haize, Herri eta bide, Behin batez* eta *Indioaren bidea*. Originalak erdaraz zeudenez, Gabriel Arestirengana joan nintzen euskaratzeko. Sekulako poza erakutsi zigun gure proposamena agertzean, eta berehala esan zigun baietz. Behin batez poema euskaratu, eta *Harri eta bide* sortu zuen. Paulo Iztuetari eskatu nion beste bi kantak euskaratu zitzan. Diskoetxeak Txabi Villaverde gitarra-jolea aurkeztu zidan, harekin grabatzeko. Elkartu, errepikapen saiotxo bat egin, eta egun berean Bilboko ostatu batean grabatu genuen. 1968ko abenduan Durangoko Azokaren karietara atera zen publikora. Bitartean, Eibarko sariketan ere parte hartu nuen, eta Estitxu eta biok puntuetan berdinduta geratu ginen. Ondotik kantaldi andana egin nituen Bizkaian, batez ere, baina Zaragozako Unibertsitatera ere joan nintzen Lourdes Iriondo eta Xabier Leterekin.

Aurrez, dantzan ere ibilia zinen plazetan.
1965ean Etorki dantza taldea sortu genuen. Edurne Isasi irakaslearekin euskal dantzak ikasi eta herriz herri hasi ginen. Aberri egunetara joaten ere bai. Eta karriketan poliziaren aurretik eskapo ibiltzen ikasi genuen. Emozioz gainezka bizi izan genuen garai hura... Biarritzera ere etorri ginen dantzara, eta ikurriña hainbat tokitan naturalki emana ikusi eta Labegueriren kantuak eskuratu genituen. Itzultzean, lagun artean, gordeka elkarturik, *Gu gara Euskadiko gaztedi berria* entzutean, negar egin genuen. Handik gutxira, Atahualparen zirrara izan nuen. Hura entzutera joan ginenon artean komentatu genuen kantua izugarrizko bitartekaria izan zitekeela jendearen kontzientziak suspertzeko. Eta neu kantuzalea eta amak erositako gitarra jotzen ikasten ari nintzena izanik, rol horrek nirea izan behar zuela pentsatzen hasi nintzen.

> **“1965ean, Etorki dantza taldea sortu eta karriketan poliziaren aurretik eskapo ibiltzen ikasi genuen. Emozioz gainezka bizitako garaia izan zen hura...”**

> **“Zerbait alaia egin dudanaren kontzientzia daukat; kantua, beste ezeren gainetik, alaitasun sortzaile eta komunikatzaile baita**

Politika kontuak tarteko, lehenik Baionara eta ondoren Parisera alde egin behar izan zenuen, 1969an. Auzo latinoan atera omen zenuen bizimodua...
Hasieran, adineko emakume bati etxeko lanak egin nizkion. Baina gutxira auzo latinoan euskaldun batek kafe antzokia zuela eta kantatzeko aukera eman ziezadakeela jakin nuen. Egun batez gitarra eskuan azaldu nintzen. Migel Arozena deitzen zen donostiar nagusia. Atahualparen kantu bat euskaraz abestu nion eta, amaitu bezain pronto, hartzen ninduela esan zidan. “Euskaraz kantatu nahi baduzu, kanta euskaraz”, azpimarratu zidan. Gauero ordu erdi bat kantatuz ateratzen nuen bizimodua; arras sinpatikoa zen giroa. Paris inguruko auzoetan 68ko maiatzaz gero sortuak ziren kultur etxeetan ere kantatzen nuen. Bi aldiz Luis Llach eta biok elkarrekin programatuak izan ginen.

Jokin Apalategirekin ezkonduta eta Ur semearekin itzuli zinen gero Ipar Euskal Herrira.
1973ko urriaren 13an itzuli ginen. Arrazoiak kulturaren enborrari lotzen zaizkionak ziren. Hasteko, Ur ikastolan eta euskal kulturan hezi nahi genuen. Geuk, unibertsitate ikasketak amaituta, proiektu kulturaletan lan egin nahi genuen. Eta garai hartako Iparraldean euskal kulturan dena egiteko zegoen.

Eta Zabal liburu-denda ireki zenuten Baionan, Joseba Jakarekin batera. Baina musikagintzan ere jarraitu zenuen.
Zabal ireki berrian ez zegoen hiru lagun hortik bizitzeko ekonomiarik. Gero bai, laster lanpostuak sortu genituen. Baina ni neu ikastolen aldeko kantaldi gehienetan programatzen ninduten, eta Euskal Herritik kanpo Bretanian, Katalunian, Okzitanian eta Flandrian mugitzen nintzen. Berehala, Maite Barnetxek France 3 telebistarako hainbat saio grabatu zizkidan. Geroago beste herrialde batzuetako telebista saioak egin nituen. Eta Franco hil zenean, Hegoaldean kantaldi ugaritan parte hartu nuen. Giro bikaina zegoen.

80ko hamarkadan aldaketa bat nabari da zure musika egiteko moduan. Gitarra utzi eta, gerora, musika klasikoan oinarritu duzu jarduna. Zergatik?
1980ko mugan aurreko kantaldi sutsu haiek itzaltzen hasi ziren. Alderdi politikoek gure aldarrikapenen beharrik ez zuten. Rock taldeak agertu ziren. Ordura arteko kantaldi formula krisi batean sartu zen; zenbaitek kantatzeari utzi zioten. Nik ordurako kuriositatea nuen kontserbatorioko ikasketak ezagutzeko, eta nire

ANGELU ETA UGAO; BIZITZA, ALDE BIETAN

“Hogeita zortzi urtez Angelun bizi naiz. Baina nire gurasoek utzitako etxe bat dugunez, ia astero joaten gara Ugaora, bertan baititut nire neba eta ahizpa. Ur bera ere familiarekin oporretara Ugaora joaten hasia da. Biziki aberatsa da bi aldeetan bizitzea. Euskal Herria handiagoa ikusten dugu. Zeren tokian tokiko euskarak, usadioak, lagunarteak, paisaiak eta abarrek zerbait berezia baitaukate. Gainera, Jokinen partetik Gipuzkoa puntaz punta ezagutzen dugu. Batzuetan gertatzen zaigu, Angelutik atera eta Gipuzkoa, Nafarroa, Araba eta Bizkaia ibilaldi berean zapaltzea”.

Beste egitasmoen artean, Sarako elizan 2005ean eskainitako kontzertuaren diskoa kaleratuko du Idirinek, Alejandro Zabala pianoan lagun izan zuelarik. JUAN LAZKANO

buruari esan nion: "hau da unea". Baionako Kontserbatorioan sartu nintzen. Aita Donostiaren kantu harmonizatuekin egindako liburu bat lortu nuen eta haren kantuak nik ordura arte kantatzen nuena baino altuagoa zen tesitura baterako ziren, esango genuke soprano ahotsarentzako idatziak zeudela. Haiek kantatzeko aukera lortu behar nuela sartu zitzaidan buruan. Eta, egia esan behar badut, ahotsa lantzea plazer bat bezala agertu zitzaidan. Fisikoki plazer egiten baitu ikusteak emeki-emeki ahotsak hartzen duen indarra eta mikrorik gabe kantatzeko lain zarela. Finean, kultura egiteko beste modu bat deskubritu nuen.

Kantari hasi zinenetik 40 urte bete ziren 2008an. Omenaldia egin zizuten Ugaon. Zer irakurketa egiten duzu zure ibilbideaz?
Berrogei urtez kantatzen jardutea bizitzaren zati eder bat da. Oroitzapenez gainezka sentitzen da bat. Zerbait alaia egin dudanaren kontzientzia daukat; kantua, beste ezeren gainetik, alaitasun sortzaile eta komunikatzaile baita.

Bestelako aitortzarik ere jaso duzu: Urrezko Domina 79an Baionan, eta 1981ean Bordelen. 2011n, aldiz, Eusko Ikaskuntzak Baionako hiriarekin banatzen duen Ohorezko Euskal Kultura Saria lortu zenuen. Zer deritzozu?
Baionako Kontserbatorioan kantu eta arte liriko ikasketak burutzean jaso nuen Urrezko Domina. Bordelen, berriz, kantu teknika hobetzeko programa bat jarraitu eta kantu lirikoaren historia ikasi nuen. Gutxien espero nuenean heldu zen Eusko Ikaskuntzak Baionako udaletxearekin partaidetzan eman zidan saria. Azpimarratzekotan zera esango dut, ni neu izan nintzela nire neurrira egindako makila jasotzen zuen lehen emaztea. Emazte borroketan ibilia nintzenez Parisko 1968ko maiatzaren ondoren egin ziren manifestaldi feministetan eta geroago Baionako *Emazteak iraultzan* taldekide izanaz, plazer handia hartu nuen lorpen horrekin.

> **"1980ko mugan, ordura arteko kantaldi formula krisian zen; eta nik kuriositatea nuen kontserbatorioko ikasketak ezagutzeko"**

Kantagintza, liburugintza... eta musika dibulgazioa ere maite duzu.
Nire lanik maiteena musikako irrati saioena izan da. Alexandre de la Cerda Radio Adour-Navarreko zuzendari nagusi zela hasi nintzen euskaraz klasikoak aurkezten. Gero, Gure Irratia, Irulegi Irratia, Egin Irratia, Euskadi Irratia... eta berriki berriro Gure Irratian izan naiz saio batzuk egiten. Asko ikasteaz gain, zoriontsu sentitzen naiz musika munduan. Egina dudan ikerketa lan bat ere aipatu nahi nuke. 2010ean Bilboko Campos Eliseos aretoan Bilboko Orkestraren laguntzarekin, Iker Sanchez zuzendari zela, kontzertu berezi bat prestatu nuen; Josune Ariztondok onartu zidan *Emakume Konpositoreei* buruzko ikerketaren ondorioa izan zen. Julie Adrienne Karrikaburu zuberotarra, Emiliana Zubeldia nafarra, Emma Chacon bilbotarra, Maria Luisa Ozaita barakaldarra eta nire *Ahizpatasuna* programatu genituen, orkestraren harmonizazioetan Idoia Azurmendi eta Zuriñe Gerenabarrena ere inplikatu zirelarik. Abeslariak Naroa Intxausti sopranoa, Marife Nogales mezzoa eta ni neu izan ginen. Grabatuta dago.

Zertan ari zara orain?
Nire kantuekin egindako beste hainbat grabaketa badu Aus-Art-Records etxeak atera gabe, eta horiek prestatzen ari naiz, alde batetik. Laster, Sarako elizan 2005ean Donostiako Hamabostaldiaren karietara Alejandro Zabalak pianoan lagunduta egin nuen kontzertua aterako dugu. Sarako herriari egindako omenaldi kontzertu bat da, 1936an hainbat euskal intelektual eta konpositoreri eman zieten ongietorri eta laguntzarengatik.

Soka ez dadin eten

Gizartearen kezkei nola aurre egin aztertuko dute gaur Donostian, 2013ko Bertso Eguneko ekitaldi nagusian

DABI PIEDRA

Ezkerretik eskuinera, Jon Maia, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Amets Arzallus bertsolariak. Beste askorekin batera, Kursaaleko oholtzan izango dira bertsotan. JOSE MARI MARTÍNEZ

BERTSO Eguna gizarte gaiei inoiz baino lotuago egongo da oraingoan. Krisi garaiak, bizimodu berriek eta beste faktore askok aldaketa sakonera eraman dute gizartea, zirt edo zart egiteko unera. Tenkatuaren tenkatuaz, apurtzeko zorian dagoen sokaren irudia erabili du Bertsozale Elkarteak gaurko jarduerak iragartzeko. Izan ere, Bertso Eguneko ekitaldi nagusian, dozena bat bertsolarik gizarte aldaketei eta horren aurreko jarrerei kantatuko diete, gizartea aztoratzen duten gaiak aztertu eta nondik jo daitekeen asmatu nahian.

"Gauden sasoia kontuan hartuta, badirudi krisi ekonomikoari buruz jardungo direla bertsolariak –dio Jon Agirresarobe Bertso Eguneko antolatzaileak–, baina ez da hori bakarrik, gizartearen aldartean eragiten duten beste aldaketa txikiagoak ere aztertu nahi ditugu". Bi orduko ikuskizunean, azkenengo urteetan gizarteak izan dituen bidegurutze nagusiak eta egin dituen hautuak azaltzen ahaleginduko dira, bertsoen bidez. "Erronka polita da, modu positiboan egin nahi duguna –jarraitu du Agirresarobek–, izan ere, gaur egun, badirudi dena ezkortasunez jantzi behar dela, baina guk ez dugu tristezia horretan sakondu nahi, baikortasunetik eraiki nahi dugu ikuskizuna". Are gehiago, estutasun uneetan sormena piztu egiten dela adierazi nahi dute gaurko ekitaldiarekin, "aldaketa momentuak egokiak dira irtenbideak bilatzeko, gauza berriak aurkitzeko, guk gizarteari gogoeta horretan lagundu nahi diogu, gure txikitasunetik". Alegia, soka apurtzear dagoela, korapilo berriak egiteko beharra azpimarratzen dute.

Bertsolaritzaren munduan bertan, maiz egon da txikota etetear, baina beti jakin izan du egokitzen, modernizatzen eta eraberritzen, "sokari korapilo asko egin dizkiogu". Arlo horretan, beraz, bertsolaritza gizartearen ispilu izan daiteke. Jon Agirresarobek azpimarratu duenez, "transmisioa eta sustapena lantzen igarri da eta plazetan ere lan ona egin da". Hamarkadaz hamarkada, bertsolaritzaren sokan korapilo berriak lotzen joan dira pertsona asko. "Oholtza gainean bertsoa beste modu batean emateko bideak zabaldu dira, gaur egun bertsoa jaso dezakegu orain dela 70 urteko moldean, edo ikuskizun berritzaileen bidez". Agirresarobek uste du garai berrietara egokitzeko giltzarrietako bat belaunaldien arteko elkarlana dela: "Ohituta gaude bertsolari beteranoak eta hasiberriak plaza berean ikustera".

Gaurko ekitaldi nagusian, sokari korapilo berriak egiteko asmoz, dozena bat bertsolari agertuko dira Kursaaleko oholtzan. Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Jon Maia, Igor Elortza, Jesus Mari Irazu, Fredi Paia, Beñat Gaztelumendi, Uxue Alberdi, Jone Uria, Ramuntxo Christy, Eneko Lazkoz eta Ander Solozabal ahaleginduko dira gizartearen kezkei erantzuten. Halaber, agertokian egongo dira Iñaki Gurrutxaga eta Aitzol Barandiaran, bertso musikatuekin; Xabier Lizaso musikaria bere pianoarekin; eta Errimak Oinetan taldeko dantzariak. Ekitaldia biribiltzeko, *Xalbador* filmaren aurrerapenaren bideoa ikusi ahal izango dute Kursaalean biltzen diren milaka bertsozaleek. Eneko Dorronsororen zuzendaritzapean, Urepeleko bertsolariari buruzko pelikula ekoizten ari dira eta orain arteko lanaren emaitzaren lehenengo lekukoak gaurko ikusleak izango dira.

BERRITZEAZ Bertso Egunaren 44. aldia da aurtengoa. Urtero Donostian egiten den jai egun horretan bertsolaritzaren eragile guztiak batzen dira, zaleen gozamenerako. "Hasieran, urtero omenaldi bat egiten zen, lehenengo aldian Uztapideri egin zitzaion –azaldu du Jon Agirresarobek–, geroago erabaki genuen, omenaldien ordez gai orokor bat hautatzea, ekitaldi nagusia horren inguruan harilkatzeko". Adibidez, aurten, gizartearen eraldaketak eta hautuak aztertuko dituzte. Bertsolaritzak beti jakin izan du egokitzen, soka puskatu ez dadin korapiloak egiten, baina Agirresaroberen ustez etengabe berritzea ezinbestekoa da, "gauza berriak asmatzen jarraitu beharko dugu guk ere, korapilo berriak lotzen". Gizartearen eredu da bertsolaritza, baina zentzurik xumeenean. "Askotan jarri gaituzte adibidetzat baina guk apaltasunez egiten dugu lan, ez dugu harrokeriarik nahi".

EGUN OSOKO JAIA

Bertso Eguneko ekitaldi nagusia Kursaal antzokian egingo da gaur, arratsaldeko seietan. Alabaina, bertsoek Donostia zipriztinduko dute egun osoan: goizean Alde Zaharreko txokoak alaitzen ibiliko dira bertsolariak, geldialdiekin Bretxako merkatuan, Bulebarrean eta Konstituzio plazan. Gauez, 600 pertsonarentzako afaria Kursaalean bertan izango da, bertsoz jantzia, jakina.

Mende laurden bat irriak ereiten

Umeei zuzendutako 23 ikuskizun taularatu ditu azken 25 urteotan Gorakada antzerki konpainiak, eta arrakastaren lorratzei jarraitzeko 'Munduari biraka' antzezlana du orain eskuartean taldeak

JON ANDER URKIAGA EGIDAZU

JADA 25 urte dira 1987. urte urruti hartatik hona. 25 urte Abadiñoko Gorakada antzerki konpainia etengabeko gorakadan abiatu zenetik. Durangon, garai hartan bazegoen helduentzako antzerkia ekoizten zuen Geroa taldea. Baina haurrentzako eremuan gabezia bat bazegoela ikusirik, zortzi antzerkizale gaztek Gorakada sortzea erabaki zuten Julio Perugorriak eginiko proposamenari baiezkoa emanez. Gaur egun, baina, Alex Diaz da urteen joanean konpainiaren barnean iraun duen bakarra. "Lehenik txotxongiloekin hasi ginen lanean, bi urte pasa zirenean aktoreak ere tartekatu genitzakeela pentsatu genuen eta ondoren bigarren obra etorri zen. Horrela joan dira urteak pasatzen, proiektu batetik bestera, eta 1990. urte inguruan Julio Perugorria eta biok baino ez ginen geratu hasierako talde hartatik; berak produkzioan eta distribuzioan ziharduen bitartean, niri alor artistikoa zegokidan".

Baina apurka-apurka hasierako proiektu hura forma hartzen joan zen eta eszenografoak, musikariak eta abar gehituz joan zitzaizkion taldeari. "Geroan eta Kukubiltxon aritutako Javi Obregón batu zitzaigun eszenografia lanak egiteko, Julio Perugorriak zuzendari lan batzuk ere egin zituen… eta hurrengo pausoa zuzendari bat kontratatzea izan zen, Mikel Gomez de Segura". Gomez de Seguraren kontratazioa mugarri bezala kokatzen du Alex Diazek eta zuzendari berriarekin batera ikuskizun osoago bat sortu zutela uste du. "Baina lehen urteetan gabeziak agerian egoten dira, antzezpenean akatsak, dramaturgian ere bai…".

Hala ere, huts egite horietatik sortu da 25 urte hauetako historia, akatsak zuzendu nahi izate horretatik taldea sendotu egin dela irizten baitu Diazek, Gorakadaren inguruan talde egonkor bat sortzeraino. Bertan koka daiteke urteotako eboluzioa. "Garapena gabeziak onartzetik heltzen da. Ikuskizun bat sortzerakoan ikaskuntza prozesua bizkortasunez gauzatu behar da; baina, hori dena metatzen joaten da, ideiak biltegiratzen joan dira, bai gure buruetan, eta bai kutxa fisikoetan, eta azken finean horrek sortzen du eboluzioa".

Urte hauetan guztietan pertsona bezala –baina baita profesionalki ere– hazi egin dela azpimarratzen du Diazek; 25 urte, 23 ikuskizun, 95 pertsona… urte asko, lan ugari eta gutxieneko kalitate bat izango duten antzezlanak sortzeko saiakera eta Euskal Herritik kanpo ere beraien lana plazaratzeko aukera izan dira emaitzetako batzuk. Eta, hala ere, ideien iturriak ez dauka berehalakoan isuririk barik geratzeko itxurarik. "Orain dela gutxi antzezlan bat aurkeztu dugu eta dagoeneko hurrengoan pentsatzen ari gara. Sorkuntzaren momentu hori da guztietan politena, irudimenari lanean uzten diozun unea. Nire kasuan behintzat, hori guztia antzezpena bera baino atseginagoa da. Gainera, gaur egungo egoerak horretara bultzatzen gaitu; lehen obra bat bi urtean behin edo sortzen genuen, gaur egun, berriz, merkatuaren murrizteak sei hilero sortzera garamatza".

"Irudimenari lanean uzten diozun unea da politena", dio Alex Diazek, konpainiaren sortzaileetako bat denak. GORAKADA/IBAN GORRITI

HAURRENTZAKO ANTZERKIA "Antzerkigintzan hasten diren asko eta asko haurrei zuzendutako antzerkiarekin hasten dira, eskuragarriena delakoan edota kontratazioak lortzeko orduan errazena delakoan", uste du Alex Diazek, baina antzerkigilearen arabera, "gerora ohartzen zara hori ez dela horrela", eta argitzen du: "Gorakada konpainia haurrei zuzendutako lanekin hasi zen Durangaldean horrelakorik ez zegoelako, baina gerora ni neu behintzat mundu horretan mantendu izan banaiz kalitate gutxi zegoelako izan da; bazirudien umeentzako lanak zirenez denak balio zuela, atal dramatiko ahula zeukaten lanak zeuden, istorioen edukiak ez ziren sendoak izaten eta horri guztiari buelta eman nahi izan diot".

Haurrei zuzendutako kalitatezko antzerkiaren alde lan egin nahi izan du urteotan Diazek, eta aitortzen du kalitatezko gero eta antzezlan gehiago dagoela. "Umeak helduak bezalakoak dira eta tratu bera eskaini behar zaie". Baina kontratazioen aldetik erraztasun handiagoa ote duten galdetzerakoan, Diaz ez dator guztiz bat. "Badirudi abantaila apur bat izan dezakegula helduei bideratutako antzerkiarekin alderatuz gero, baina hainbeste ikuskizun daudenez umeei begira eginikoak, programa desberdinak ikusterakoan ohartzen zara talde amateurrak gero eta gehiago kontratatzen direla, batik bat prezio merkeagoa eskaintzen dutelako. Eta kalitatea galtzen ari da, badirudi denak balio duela arazo ekonomikoak tartean badira".

Alex Diaz da Gorakada konpainiako kide bakarra egun, atzean lan-talde sendo bat duen arren. Eta nahiz eta garai errazenak izan ez kulturarentzat, badirudi Abadiñoko konpainia honek etorkizunik baduela antzerkia bizitzeko modu bezala daukan gidari baten eskutik, "antzerkia, azken finean, bizitzaren beraren isla baino ez delako", ondorioztatzen du.

IBILBIDE BATEN ERAKUSLEIHO

Abadiñoko antzerki konpainiak bere 25 urteen laburpen lana egiten duen 'Gorakada 25 urte' erakusketa dauka zabalik Kultur Leioan, eta ikusgai izango da hilaren 27ra arte. Txotxongiloak, antzezlanetan erabilitako 'atrezzo'a hala nola taldearen ibilbidearekin lotutako beste hainbat elementu aurkitu ahal izango ditu Leioara gerturatzen denak.

Gau libreak

Urteko gau zoriontsu eta lasaienak izaten dira kanpatze librean pasatakoak. Baina hasi dira gozatze hutsagatik isunak jartzen

BETI dago ermitaren bat: herriaren kanpoaldean, muino baten gainean, panoramika ederrarekin eta patxada osoz lo egiteko zabalgune batekin.

Kanpin denda txiki eta arin bat erosi nuen duela sei urte, *Vespaña* bidaia egiteko (Espainiari buelta vespaz). 18 euro ordaindu nituen. Afaldu ondoren eta zakura sartu aurreko une lasaietan, denbora dago ermitaren inguruan paseo bat eman eta, adibidez, denda eskas honetan ehun gau inguru igaro ditudala kalkulatzeko. Gau bakoitza, beraz, 18 zentimotan atera zaidala gutxi gora behera. Bidaiatzea garestia omen.

Antzeko gogoetetan nenbilen duela aste batzuk Kantabriako bazter bakarti batean, gaueko hamaiketan Guardia Zibilaren auto bat agertu zenean. Bi guardiek paperak eskatu zizkidaten. Kantabria osoan kanpatzea debekatuta dagoela eta 300 euroko isun bat jar ziezadaketela esan zidaten. “Eta bost izarreko hotel bat baino garestiago aterako litzaizuke orduan”, gehitu zuen guardia gazteak.

Guardia zaharrak argitu zidan horrelako kasutan ez dituztela isunak jartzen. Gehienez ere, diskretuak ez diren kanpinlariak lekutik mugiarazten dituztela. “Ni beti ibili naiz mendian, oso gaztetatik, eta edozein tokitan kanpatzen genuen, lasai lasai. Ez genion inori kalterik egiten, ez genuen zikintzen eta goiz jasotzen genuen denda. Baina ez genuen gastatzen, noski. Eta orain kanpin eta hoteletako jabeak kexatu egiten dira, negozioa galtzen dutelako, eta agintariek legeak ateratzen dituzte kanpatze librea debekatzeko”. Guardiak arretaz begiratu zuen nire denda txikia, bere motoaren kutxan sartuko ote litzaiokeen kalkulatu zuen, ea zaku ona banuen galdetu zidan –gau hartan zero azpitik bi edo hiru gradu egin zituelako– eta goizean goiz altxatzeko eta joateko aholkatu zidan.

Arazorik ez. Horixe da beti egiten dudana.

Langile autonomo egin nintzen, batez ere, goiz ez jaikitzeko. Egunsentia ikusten badut, bidaiatzen ari naizen edo mendira noan seinale. Goiz jaikitzen banaiz, egun horretan lanik egingo ez dudan seinale. Guardia zibilak etorri eta hurrengo egunean zazpietan atera nintzen zakutik, oporretan nengoelako eta goiz jaikitzeko apeta bete nezakeelako.

Guardiek esan zidaten Kantabria osoan kanpatzea debekatuta dagoela eta 300 euroko isun bat jar ziezadaketela

Eguzkia ez zen oraindik atera, zerumugan lehen argi arrosak antzematen baziren ere. Hotz egiten zuen, zero azpitik gradu bat edo bi, inguruko belarra izoztuta zegoen, eta nagikeria galanta sentitu nuen zakutik atera eta denda jasotzen hasteko. Baina nagikeria horren plazera ere gozatu nuen, deserosotasun hauek edozein txokotan gaua pasatzeko askatasunaren seinale eta prezio txikiak baitira. Ez dakit ondo nondik datorkidan plazer hori: askatasuna? Apeta hutsaz jokatzeko aukera? Neure buruarekin aski izatearen poza? Zuhurkeria?

Edozer dela ere, urteko egun zoriontsu eta lasaienak izaten dira niretzat. Eta urte bakoitzean pilatutako zoriontasunaren maila kalkulatzeko, faktore hori oso kontutan hartzen dut: kanpatze librean pasatako gau kopurua. Aske ibiltzearen gaineko zergarekin ozpindu nahi diguten zoriontasun eremu txikia.

BIDAIA KOADERNOA

ANDER IZAGIRRE
anderiza.com

artez
euskara zerbitzua
itzulpenak - hizkuntza aholkularitza - papergintza
944 480 000 posta@artez.net www.artez.net